2.- Que se encargue la realización de un estudio técnico con el fin de ordenar, de ubicar y racionalizar con criterios técnicos y urbanísticos la implantación de estas infraestructuras y asegurar un

Getxoko herritarren osasuna ahalik eta gehien babes dadin. Azterketa hori egiteko, gutxienez hiru parametro hartuko dira kontuan: etxebizitzetatik ahalik eta urrunen ezarri, ahalik eta estaldura handiena izan eta lurzoru publikoan ezarri.

3.- Udalak egungo antenen egoera legala azter dezala, ondorioz aritu ahal izateko.

4.- Operadoreei eskatu Getxon epe ertain eta luzerako plana aurkezteko hainbeste EBTM justifikatuko dituen.

5.- Elektropoluzioa duten inguruak zehaztu eta mugatu mapa batean.

6.- Ordenantza berria idatzi eta onartu, Getxon eskuko telefonoen guneak ezartzea arautzeko.

elevado nivel de protección para la salud de los vecinos de Getxo, teniendo en cuenta, al menos, tres parámetros para el estudio: máximo alejamiento de las viviendas, máxima cobertura y en suelo público.

3.- Que el Ayuntamiento estudie la situación legal de las antenas actuales con el fin poder actuar en consecuencia.

4.- Que se requiera a las operadoras para que presenten un plan de despliegue a medio y largo plazo en Getxo que justifiquen la necesidad de tantas EBTM en el municipio.

5.- Determinar y delimitar un mapa con las zonas contaminadas por electropolución.

6.- Redactar y aprobar una nueva Ordenanza para regular la implantación de las estaciones de base de telefonía móvil en Getxo”.

178.- TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA GETXOKO FAMILIEK SEME-ALABEN HEZIKETA-GASTU OROKORRAK ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ONARTZEARI BURUZ.

178º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/APROBACIÓN DE BASES ESPECÍFICAS REGULADORAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A LAS FAMILIAS DE GETXO PARA CONTRIBUIR A SUFRAGAR LOS GASTOS GENERALES DE EDUCACIÓN DE SUS HIJOS.

Mercedes Angulok irakurri du mozioa.

Mercedes Angulo da lectura a la Moción de referencia.

Josu Ahedok hartu du hitza eta adierazi du jatorrizko mozioa talde popularrarena zela eta, beraz, aldeko

Interviene Josu Ahedo para manifestar que la Moción originaria partió del grupo Popular y por tanto van a votar a

botoa emango dutela. Izan ere, planteatzen dena Eusko Jaurlaritzak ematen duenaren osagarria da eta zorionak ematen dizkie oposizioko bi taldeen elkarlanagatik.

Urkiza jaunak adierazi du ez duela laguntzarik babestuko, horiek ematerakoan hartzaileen egoera ekonomikoa kontuan izaten ez bada. Era berean, ez zaio zuzena iruditzen udalerritik kanpo ikasten ari diren udalerriko herritarrak kanpoan uztea. Artaza institutua da horren adibide, udalerraren muga dago eta ikasle gehienak Getxokoak dira.

Begoña Ezkurak gobernu taldearen izenean adierazi du deigarria dela mozioa talde sozialistak aurkeztu izana jatorrian talde popularrarena zenean eta berretsi egin du Eusko Jaurlaritzaren eskumenak direla eta horiek behar adina estaltzen dituztela planteatutako beharrak. Izan ere, bere iritziz beharra duten guztiek jasotzen dute Eusko Jaurlaritzaren laguntza edo Gizarte Zerbitzuen Departamendukoa.

Mercedes Angulok erantzun dio legediak baimena ematen diela udalei jarduera osagarriak egin ahal izateko. Beste administrazioen jarduerak osatzen dituzte Hezkuntza bezalako arloetan eta mozioaren xede bakarra ez dela testu-liburuak ordaintzea, baizik eta laguntza orokorrak direla doako hezkuntza lortzeko bidean.

Josu Ahedok adierazi du garrantzitsua dela hezkuntza sustatzea eta gobernu taldeari eskatu dio ez dadila beti bezala

favor, ya que estiman que lo que se plantea es un complemento a lo que realiza el Gobierno Vasco, y se felicita del trabajo conjunto de los dos grupos de la oposición.

El Sr. Urkiza indica que no va a apoyar unas ayudas en cuya concesión no se tenga en cuenta la situación económica de los perceptores, así como también le parece injusto que se excluya a los vecinos del municipio que estudian en centros ubicados fuera del municipio, poniendo como ejemplo el Instituto Artaza que está en el límite municipal y cuyo alumnado es mayoritariamente vecino de Getxo.

Begoña Ezkurra, en nombre del equipo de Gobierno indica que le llama la atención que presente la Moción el grupo Socialista cuando la Moción originaria era del grupo Popular, y se reafirma en que se trata de competencias del Gobierno Vasco que cubren suficientemente las necesidades que se plantean, ya que estima que no hay ninguna persona en situación de necesidad que no perciba ayudas bien del Gobierno Vasco o bien del Departamento de Servicios Sociales.

Mercedes Angulo replica indicando que la legislación permite a los ayuntamientos realizar actividades complementarias a las realizadas por otras administraciones en diferentes ámbitos como en el de la Educación, y que la moción no tiene como objeto únicamente el abonar libros de texto, si no que son ayudas generales en orden a ir avanzando en el tema de la gratuidad de la educación.

Josu Ahedo indica la importancia de apoyar la educación y pide al equipo de Gobierno que no se instale en el no

hezkuntzako gaietan ezezkoan jarri.

Begoña Ezkurra berretsi du behar hori estalita dagoela Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzekin eta Gizarte Zerbitzuek ematen dituztenekin, dagokionean. Era berean, aurkeztu diren oinarriak ere kritikatu egin ditu, ez baitu laguntzentzako metatze-mugarik ezartzen eta 450.000 euroko gastua planteatzen da, nahiz eta ez justifikatu nondik lortuko diren.

Alkate jaunak adierazi du Tokiko Erregimenaren legediak udalera mugatzen ez diren gaietan Udalari aritzeko ematen dion gaitasuna arauz garatu beharra dagoela eta hori argi geratu dela euskara bezalako alorretan, epai desberdinen bidez. Proposamenari dagokionez, ez dago ados onuradunen gaitasun ekonomikoa kontuan ez hartzearekin, are gehiago proposamena ezkerrekoa dela dioen talde batek egin badu; baina beste kasu batzuetan bezala, oraingoa ere talde popularrarentzako lanean ari dela dio.

Almansak adierazi du ez duela EAJren leziorik onartuko aberastasun banaketari buruz eta aurkeztu dituen oinarriak legezkoak direla. Gogorarazi du gobernu taldeak diruz laguntzen dituela beste kasu batzuk, Udalbiltza esaterako, gaitasun ekonomikoa kontuan izan gabe. Alkatearen harrokeria kritikatu du, udalbatzaren gehiengoaren iritzia ez entzuteko nahia adierazi baitu eta akordio horiek betetzeari uko egin. Amaitzeko, proposamena legezkoa dela berretsi du, eta gogorarazi du EAJk atzera bota dituela talde sozialistak aurkeztutako elementu zuzentzaileen proposamenak errentaren arabera.

permanente en materias de educación.

Begoña Ezkurra se reafirma en que esta demanda está cubierta por las ayudas del Gobierno Vasco y las ayudas de Servicios Sociales en su caso. Critica así mismo las bases concretas que se presentan, ya que no plantean ningún límite acumulativo de ayudas, ni exigen justificación de las subvenciones, y se plantea un gasto de 450.000 euros que no se justifica de donde se va a obtener.

El Sr. Alcalde indica que la habilitación para actuar al Ayuntamiento que da la legislación de Régimen Local en materias no estrictamente municipales ha de ser desarrollada normativamente, tal y como se ha puesto de reflejo en ámbitos como el euskera por diferentes sentencias judiciales. Respecto a la propuesta discrepa que no se tenga en cuenta la capacidad económica de los beneficiarios, máxime aún tratándose de la propuesta de un grupo que se considera de izquierdas, pero que en este caso como en otros, sigue haciendo el trabajo para el grupo Popular.

El Sr. Almansa indica que no va a admitir lecciones del PNV sobre redistribución de la riqueza, y que las bases que se presentan son legales y recuerda que el equipo de Gobierno subvenciona, sin tener en cuenta situaciones de capacidades económicas, en otros supuestos como el de Udalbiltza. Critica la arrogancia del Alcalde que manifiesta su voluntad de desoir lo que opina la mayoría del Pleno, negándose a cumplir dichos acuerdos. Finaliza ratificándose en la legalidad de la propuesta, y recordando que el PNV ha rechazado propuestas de elementos correctores en función de la renta que el grupo Socialista ha presentado en diferentes ocasiones.

Toca jaunak adierazi du Getxoko ikasleen %50 baino gehiago udalerritik kanpoko ikastetxeetan ari dela DBH egiten eta horregatik ez dituztela eskolaz kanpoko jarduerak ere izaten. Eta errentaren diskriminazioari dagokionez, adierazi du udal zerbitzu askotan, hala nola, kirol eta kultur instalazioak erabiltzean, erabiltzailearen gaitasun ekonomikoak ez dituela sarbidea edo erabiltzeko baldintzak zehazten.

Alkateak adierazi dio Almansa jaunari Alderdi Sozialistak ezin diola EAJri inolako leziorik eman gizarte politketan, Eusko Jaurlaritzak osasun, hezkuntza, gizartekintza... arloetan duen jarduerak argi uzten duenez. Era berean, Alkate dela gogorarazi dio Getxoko herritar gehienek berari eman ziotelako boza eta gogorarazi dio OHZn gobernu taldeak tarifak eta bonifikazioak ezartzerakoan gaitasun ekonomikoa ezartzea planteatu zuela eta gai hori kontuan izango dela familia ugariari laguntzak ematean ere.

Eztabaida amaitutako bozkatu da mozioa eta emaitza honakoa izan da: PP eta PSE-EEren 14 boto alde eta EAJ eta EB/Bren 11 aurka.

Ondorioz, gehiengoak adostu zuen:

“Oinarria: 2007ko irailaren 27an Udalbatzak Alderdi Popularraren ekimenez mozio bat onartu zuen, talde sozialistarekin transakzionatua honakoari buruz:

El Sr. Toca indica que en la ESO, más del 50% de estudiantes de Getxo estudian en centros fuera del municipio, y por eso mismo tampoco son beneficiarios de actividades extraescolares. Y en relación a la discriminación de la renta manifiesta que muchos servicios municipales como el uso de instalaciones deportivas, culturales, etc, la capacidad económica del usuario no determina el acceso ni las condiciones de uso.

El Sr. Alcalde indica al Sr. Almansa que el Partido Socialista en políticas sociales no puede dar ninguna lección al PNV, como demuestra la actuación del Gobierno Vasco en materias sanitarias, educativas, de acción social, etc. Recuerda así mismo que es Alcalde en base al principio democrático de haber sido el más votado por los ciudadanos de Getxo, y recuerda que en el IBI, el equipo de Gobierno planteó en la aplicación de las tarifas y las bonificaciones la capacidad económica de los afectados, cuestión que también se tendrá en cuenta en las ayudas a familias numerosas.

Finalizado el debate se somete la Moción de referencia a votación con el siguiente resultado: 14 votos a favor del PP y PSE-EE y 11 en contra del PNV y EB/B.

En consecuencia por mayoría se acordó:

“Considerando, que el pasado 27 de septiembre de 2007, el Ayuntamiento Pleno aprobó a iniciativa del Grupo Municipal del Partido Popular, una moción, que fue transacionada con el Grupo Municipal Socialista, relativa a la adquisición de:

“Testu-liburuak erosteko laguntza familiei” ebazpenak honakoa dio: “Tokiko erregimenaren oinarriak arautzen dituen Legeko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak (38/2003 Legeak) adierazitakoaren arabera eta Diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzan adierazitakoaren arabera, Getxoko Udaleko udalbatzak 2007ko irailaren 28an egindako bilkuran gobernu taldeari agindu zion presidentziako hurrengo informazio batzordean proposamen bat aurkezteko “SEME-ALABEN HEZIKETA-GASTU OROKORRAK ORDAINTZEKO GETXOKO FAMILIEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO BERARIAZKO OINARRIEKIN” ikasturte honetan ezarri ahal izateko.”

Ikusirik urriaren 17ko presidentziaren informazio batzordean ez dela proposamen hori aurkeztu eta, beraz, udalbatzaren agindua ez dela bete, talde sozialistak honakoa proposatzen du:

MOZIOA

Tokiko erregimenaren oinarriak arautzen dituen Legeko 28. artikuluan, diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak (38/2003 Legeak) eta Diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzan adierazitakoaren arabera Getxoko Udaleko udalbatzak 2007ko urriaren 26an egindako bilkuran erabaki du onartzea SEME-ALABEN HEZIKETA-GASTU OROKORRAK ORDAINTZEKO GETXOKO FAMILIEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO BERARIAZKO

“Ayuda familiar para la adquisición de libros de texto”, parte resolutive dice: “A tenor de lo dispuesto en artículo 28 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, así como lo señalado en la Ley General de Subvenciones (Ley 38/2003) y en la propia Ordenanza Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones, el Pleno de Ayuntamiento de Getxo, en su reunión de fecha 28 de septiembre de 2007, insta al equipo de Gobierno a que en la próxima reunión de la Comisión Informativa de Presidencia, presente una propuesta de “BASES ESPECÍFICAS REGULADORAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A LAS FAMILIAS DE GETXO PARA CONTRIBUIR A SUFRAGAR LOS GASTOS GENERALES DE EDUCACIÓN DE SUS HIJOS”, para pueda ser aplicada en el presente curso escolar.”

Visto que, en la Comisión Informativa de Presidencia del miércoles 17 de octubre, no ha sido presentada dicha propuesta, incumpliendo con ello el mandato del Ayuntamiento Pleno, el Grupo Municipal Socialista propone al Pleno la siguiente,

MOCIÓN

De conformidad con lo dispuesto en artículo 28 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, así como lo señalado en la Ley General de Subvenciones (Ley 38/2003) y en la propia Ordenanza Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones, el Pleno de Ayuntamiento de Getxo, en su reunión de fecha 26 de octubre de 2007, acuerda aprobar las, BASES ESPECÍFICAS REGULADORAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A LAS FAMILIAS

OINARRIAK honekin batera doan testuaren arabera.”

DE GETXO PARA CONTRIBUIR A SUFRAGAR LOS GASTOS GENERALES DE EDUCACIÓN DE SUS HIJOS, de acuerdo con el texto articulado adjunto”.

179.- TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA UDALEKO KIDEAK TREBAKUNTZA IKASTAROETARA IOATEAREN GASTUAK ORDAINTZEARI BURUZ.

179º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/ABONO DE GASTOS DERIVADOS DE LA ASISTENCIA DE CORPORATIVOS A CURSOS DE FORMACIÓN.

Mercedes Angulok irakurri du mozioa.

Mercedes Angulo da lectura a la Moción de referencia.

Toca jaunak esan du mozioa babestu egingo dutela, zinegotzien trebakuntzak ondorioak baititu udaleko lana hobeto egitean.

El Sr. Toca indica que van a apoyar la Moción ya que estiman que la formación de los concejales redundará en un mejor trabajo municipal.

Kepa Miñambres esan du Udalak ordaintzen dituela EUDELe zinegotziak trebatzeko eskaintzen dituen ikastaroen gastuak. Bere iritziz, trebatze horiek bakoitzak berak ordaindu behar ditu gai zehatz batzuetan, are gehiago oposizioko zinegotziak direnean eta gobernuaren kudeaketan inolako erantzukizunik ez dutenean. Zentzu horretan, gogorarazi du udal talde bakoitzak diru-laguntza bat duela taldeko eta beste bat zinegotzi bakoitzeko, eta horiek erabil daitezkeela zinegotzien trebakuntza ordaintzeko alderdi politiko bakoitzak interesgarritzat jotako arlo haietan.

El Sr. Kepa Miñambres manifestó que desde éste Ayuntamiento se vienen sufragando los gastos derivados de los cursos que oferta EUDEL para la capacitación de Concejales. Que consideran que las capacitaciones, en materias concretas, las debe sufragar cada uno, máxime cuando se trate de concejales de la oposición sin responsabilidad en la gestión de Gobierno. En éste sentido recuerda que cada grupo municipal tiene una subvención por grupo y otra por cada concejal, que puede perfectamente ser utilizada para afrontar la formación de los corporativos en aquellas materias que cada partido político pueda considerar interesante.

Toca jaunak kritikatu egin du gobernu taldean erantzukizunik ez izateagatik diru-laguntza jaso ezina, izan ere, bere

El Sr. Toca critica que sea causa de denegación el carecer de responsabilidades en el equipo de

ustez zinegotzi guztiek eskubide berdinak dituzte eta talde guztiek hartukizun ekonomiko berdinak ere bai, ez du, beraz, bazterkeria hori ulertzen.

Urkizak esan du ez zaiola testua zuzena iruditzen eta arrazoizkoagoa iruditzen zaio gaia zinegotzien trebakuntzarako plan bat egin eta horren bidez mugatzea.

Mercedes Angulok errebindikatu du zinegotziek trebakuntza ikastaroak aukeratzeko askatasuna behar luketela eta berak hirigintzako ikastaro bat eskatu zuela, gero ukatu egin zitzaion arren. Ikastaro horren matrikula zinegotzitzako lehenbiziko hilabeteen dieten bidez kobratutakoa baino gehiago izan zela.

Kepa Miñambresen berretsi du zinegotzien trebakuntzaren alde dagoela, baina arrazoizkoa iruditzen zaiola taldeek jasotzen duten diruarekin finantzatzea.

Toca jaunak adierazi dio Miñambres jaunari hasieran ulertu duela oposizioko zinegotziek taldeei ematen zaien diruarekin ordaindu behar zituztela trebakuntza ikastaroak, baina gobernu taldekoek ez. Eta hori ez zaiola inondik eta inora bidezkoa iruditzen, zinegotzi guztiak berdinak baitira eta uste du adierazpen horiek saioa asko luzatzen ari delako egin direla.

Miñambres jaunak berriro esan du bere iritziz egokia dela EUDELek zinegotziak trebatzeko dituen ikastaroak finantzatzea, baina gainontzeko trebakuntzak talde

Gobierno ya que cree que todos los concejales tienen los mismos derechos y que además todos los grupos reciben las mismas percepciones económicas, por lo que no entiende la discriminación.

El Sr. Urkiza manifiesta que no le parece correcto el texto concreto y cree más razonable limitar la cuestión a través de la elaboración de un plan de formación para corporativos.

Mercedes Angulo reivindica la libertad de elección de cursos por parte de los concejales, y que ella solicitó un curso de urbanismo que le fue denegado, y que la matrícula le supuso un importe mayor que lo que cobró por dietas en su primer mes de corporativo.

Kepa Miñambres insiste en que está a favor de la formación de los corporativos, pero lo que le parece razonable es que se financie con las percepciones económicas de los grupos.

El Sr. Toca indica al Sr. Miñambres que la manifestación inicial que había entendido era que los concejales de la oposición debían financiar su formación con cargo a las aportaciones a los grupos, y los del equipo de Gobierno no, y que ello no le parece en absoluto aceptable ya que todos los concejales son iguales, y estima que estas manifestaciones sólo pueden derivarse de lo prolongado que está resultando la sesión plenaria.

El Sr. Miñambres insiste en que le parece bien financiar los cursos de capacitación de concejales impulsados por EUDEL, pero que el resto de la formación lo debe pagar cada grupo

politiko bakoitzak ordaindu behar dituela, are gehiago Gobernuan inolako erantzukizunak ez dutenean. Horretarako daude udal taldeentzako diru-laguntzak.

Mozioa bozkatu egin da eta emaitza honakoa izan da: PP eta PSE-EEren 14 boto alde eta EAJ eta EB/Bren 11 aurka.

Ondorioz, gehiengoak adostu du:

“Oinarria: tokiko erregimenaren oinarriak arautzen dituen Legeko 73.2 artikulua dio tokiko korporazio-kideek euren kargua hartzen dutenean kargu horri dagozkion betebeharrak eta eskubideak bete behar dituzte.

Oinarria: betebeharrak eta eskubide horiek eraginkortasunez eta modu fidagarrian bete ahal izateko, beharrezkoa da ezagupen tekniko eta legal batzuk hartzea edo areagotzea, herritarrei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.

Oinarria: ezagutza horiek hartzeko edo areagotzeko batzuetan beharrezkoa da prestakuntza ikastaroetara joatea. Ikastaro horiek erakunde publikoen mendeko organismoek ematen dituzte, HAEEK edo EUDELEK esaterako, eta zinegotziaren kargu izaten dira edo gobernu taldearen erabaki puntualaren mende egoten dira.

Oinarria: kontuan hartuta trebatzeko beharra orokorra dela eta behar horren ondoriozko gastuak tokiko erakundearen kargu izan behar direla, talde sozialistak honako mozioa

político, máxime cuando no se tienen responsabilidades de Gobierno, y para ello están las subvenciones a los grupos municipales.

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor del PP y PSE-EE y 11 en contra del PNV y EB/B.

En consecuencia, por mayoría se acordó:

“Visto el artículo 73.2 de la LRBRL que señala que los miembros de las Corporaciones locales, una vez tomen posesión de su cargo, tienen la obligación estricta del cumplimiento de los deberes y obligaciones inherentes al cargo.

Considerando, que para poder ejercer dichas obligaciones y deberes en condiciones de eficacia y fiabilidad pública, se hace necesario adquirir o ampliar una serie de conocimientos técnicos y legales, que sirvan para prestar un mejor servicio a la ciudadanía.

Considerando, que para adquirir o ampliar dichos conocimientos se hace necesario, en muchos casos, la asistencia a cursos de formación impartidos por organismos adscrito a las instituciones públicas, como son el IVAP o EUDEL, con un costo a cargo del concejal o concejala, o supeditado su subvención a la decisión puntual del equipo de gobierno.

Considerando, que se hace necesario asumir la generalidad de dicha necesidad formativa, así como que los gastos derivados de esta necesidad corran a cargo de la Institución Local, el

aurkeztu dio Udalbatzari,

MOZIOA

1.- Udaleko aurrekontuen kargura diruz lagundu daitezela zinegotzien matrikulazio gastuak eta material osagarriak, baita trebatzeko, gaurkutzeko, prestakuntzarako edo bestetarako ikastaroak ere, erakunde publikoen mendeko organismoek ematen baldin badituzte.”

**180.- TALDE SOZIALISTAREN
MOZIOA AIBOAKO METRO
GELTOKIAN SARBIDE
MEKANIKOAK JARTZEARI ETA
BESTE BATZUEI BURUZ.**

Almansa jaunak irakurri du mozioa.

Iñaki Gamero adierazi du talde popularrak mozioa babestu egingo duela gabezia bati erantzuten baitio eta antzeko mozioak aurkeztu zituela talde popularrak eta 2005eko, 2006ko eta 2007ko aurrekontuetan horri buruzko zuzenketa bat jarri ere bai, baina gobernu taldeak atzera bota zituela.

Urkiza jaunak esan du mozioa babestu egingo dutela beharrezkoa baita garraio publikoan muga fisiko hori gainditzea eta interesgarria litzateke beste zerbitzu publiko batzuetako sarbideak aztertzea eta baloratzea ere, adibidez, Epaitegikoak, Ogasunekoak, Udaletxeak, etab.

Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente,

MOCIÓN

1- Que con cargo al presupuesto del Ayuntamiento sean subvencionados a los concejales y concejalas de la Corporación que así lo soliciten, los gastos de matriculación así como del material complementario, de los cursos de capacitación, actualización o de formación u otros, que sean impartidos por organismos o entes adscrito a las Instituciones públicas.”

**180º.- MOCIÓN DEL GRUPO
MUNICIPAL SOCIALISTA
S/DOTACIÓN DE ACCESOS
MECÁNICOS A LA ESTACIÓN DEL
METRO DE AIBOA, Y OTROS
EXTREMOS.**

El Sr. Almansa da lectura a la Moción de referencia.

Iñaki Gamero indica que el grupo Popular va a apoyar la Moción ya que responde a una carencia vecinal y que mociones en este sentido presentó el grupo Popular, tanto respecto como una enmienda al presupuesto del 2005, como al del 2006 y 2007, todas ellas rechazadas por el equipo de Gobierno.

El Sr. Urkiza manifiesta que van a apoyar la Moción ya que es necesario superar esa barrera física al transporte público, incluso es interesante estudiar y valorar el acceso a otras zonas limítrofes de servicios públicos como el Juzgado, Hacienda, Ayuntamiento etc.

Arregi jaunak esan du gobernu taldearen izenean aldeko botoa emango dutela jarduera hori aurreikusita baitago euren hauteskunde programan. Era berean, adierazi du Garraio Partzuergoarekin harremanetan jarrita daudela eta teknikariak inguru horretako guztiko irisgarritasuna aztertzen ari direla.

Almansa jaunak talde guztien babesa eskertu du eta adierazi du ados dagoela inguru guztiko irisgarritasuna aztertzearekin.

Mozioa bozkatu da eta denen aldeko botoak lortu ditu.

Ondorioz, aho batez adostu da:

“Oinarria: talde sozialistak 04-11-26ko osoko bilkuran mozio bat aurkeztu zuen Udalbatzak hitza eman zezan 2005eko legealdian Aiboako metro geltokian sarbide mekanikoak jartzeko.

Oinarria: mozio horrek herritarren errebindikazioak jasotzen zituen eta PPren babesa jaso arren, gobernu taldeak atzera bota zuen beste konpromiso batzuk aitzakia hartuta.

Oinarria: hilabete honetan bertan inguruko auzotarrek Udalari gogorarazi diote sarbide mekaniko horiek onartu zain daudela.

Oinarria: azpiegitura hori trenbide metropoliarraren (metroaren) geltokirako da.

El Sr. Arregi, en nombre del equipo de Gobierno indica que van a votar a favor de la Moción, ya que esta actuación está contemplada en su programa electoral. Manifiesta así mismo que se han iniciado contactos con el Consorcio de Transportes y que los técnicos están estudiando la accesibilidad de toda la zona.

El Sr. Almansa agradece el apoyo de todos los grupos y manifiesta su conformidad con que el estudio alcance a toda la zona.

Sometida la Moción de referencia a votación obtuvo la totalidad de los votos favorables.

En consecuencia por unanimidad se acordó:

“Considerando, que el Grupo Municipal Socialista, presentó al pleno del 26-11-04, una moción relativa a que el Ayuntamiento Pleno se comprometiera a realizar en el ejercicio del 2005 los accesos mecánicos a la estación del Metro en Aiboa.

Visto que dicha moción recogía reivindicaciones vecinales, siendo apoyada por el PP y rechazada por el entonces equipo de Gobierno, aludiendo a otros compromisos

Considerando, que, en este mismo mes, los vecinos de la zona han vuelto a recordar al Consistorio que dichos accesos mecánicos están pendientes de aprobación.

Considerando, que dicha infraestructura es de acceso a una estación del servicio del ferrocarril metropolitano (Metro).

Oinarria: Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeko xedapenak, eta kontuan hartuta berriro ere Aiboa metro geltoki inguruko auzotarren errebindikazioak, talde sozialistak mozio hau aurkeztu dio Udalbatzari

MOZIOA

1.- Getxoko Udaleko udalbatzak adostu du auzotarren errebindikazioak kontuan izatea eta ondorioz gobernu taldea sustatzen du Aiboako metro geltokian sarbide mekanikoak jartzera.

2.- Getxoko Udaleko udalbatzak gobernu taldea sustatzen du Bizkaiko Garraio Partzuergoak parte har dezan trenbide metropoliarraren (METRO) kudeatzailea denez, sarbide horien proiektuaren eta burutzapenaren gastuetan."

181.- TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA GENERO INDARKERIAREN ETA BESTELAKOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ALDEKO BALIABIDEAK JARTZEARI BURUZ.

Mercedes Angulok irakurri du mozioa.

Keltse Eigurenek hitz egin du gobernu taldearen izenean eta adierazi du Udalak onartu duela mozio instituzional bat aho batez eta horrek argi uzten duela Udalaren eta talde

Visto las disposiciones de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad, y recogiendo, una vez más, las reivindicaciones del conjunto de los vecinos del entorno de la estación del metro en Aiboa, el Grupo Municipal Socialista, presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente

MOCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda atender las reivindicaciones vecinales y en consecuencia insta al equipo de Gobierno a que dote de accesos mecánicos la estación del metro en Aiboa.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al equipo de Gobierno a que involucre al Consorcio de Transportes de Bizkaia, como gestor del ferrocarril metropolitano (METRO), en los gastos del proyecto y ejecución de dichos acceso."

181º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/DISPOSICIÓN DE RECURSOS A FAVOR DE LAS MUJERES VÍCTIMAS DE LA VIOLENCIA DE GÉNERO; Y OTROS EXTREMOS.

Mercedes Angulo da lectura a la Moción de referencia.

Keltse Eiguren, en nombre del equipo de Gobierno manifiesta que el Ayuntamiento ha aprobado una Moción institucional por unanimidad, la cual refleja la postura del

guztien jarrera. Gogorazi du aho batez onartu zela garatzen ari diren II. Berdintasun Plana eta genero indarkeriari buruzko jarduerak jasotzen dituela. Adierazi du biktimak aholkatzeko zerbitzuak daudela, gazteria sentibilizatzeko planak, gizonentzako tailerrak sexismoa ekiditeko, etab. Bere ustez egoera hau izanda, erreduantea da mozioa onartzea, genero indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udal politika aktiboa baitago, beraz, bozketan abstenitu egingo dira.

Raquel Gonzálezek adierazi du talde popularrak mozioa babestu egingo duela; izan ere, egoera oso larria da eta erreduantziarik dagoenik ezin da esan, egonda ere.

Iñaki Urkizak adierazi du mozioa babestu egingo duela edukia kontuan hartuta, eta aurrez hartutako akordioak dena delakoak izanda.

Mercedes Anguloren iritziz mozioa eta aitoren instituzionala osagarriak dira eta gobernu taldeari babesteko eskatu dio.

Keltse Eigurenek adierazi du funtsarekin ados daudenez eta gaia larria eta garrantzitsua denez, mozioa babestu egingo dutela.

Mozioa bozkatu ondoren, kide guztiek onartu zuten.

Ondorioz, aho batez adostu zen:

Ayuntamiento y de todos los grupos. Recuerda que por unanimidad se aprobó el II Plan de Igualdad que se está desarrollando, y que recoge actuaciones en los ámbitos referidos a la violencia de género, e indica que existen servicios de asesoramiento a víctimas, planes de sensibilización en la juventud, talleres dirigidos a hombres para evitar el sexismo, etc. Cree que ante esa situación es redundante la aprobación de la Moción ya que existe el compromiso de una política municipal activa contra la violencia de género y a favor de la igualdad, por lo que se abstendrán en la votación de la Moción.

Raquel González indica que el grupo Popular va a apoyar la Moción ya que considera suficientemente grave la cuestión como para admitir redundancias, si estas se producen.

Iñaki Urkiza indica que van a apoyar la Moción atendiendo al contenido, e independientemente de los acuerdos antes adoptados.

Mercedes Angulo manifiesta que su opinión es que la Moción es complementaria de la declaración institucional y pide al equipo de Gobierno que la apoye.

Keltse Eiguren indica que estando de acuerdo con el fondo y ante la gravedad e importancia del tema apoyarán la Moción.

Sometida la Moción de referencia a votación fue aprobada por la totalidad de la corporación.

En consecuencia por unanimidad se acordó:

“Beste urte batez, datorren azaroaren 25ean Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango dugula eta, Getxoko Udalbatza osoak Getxoko herritar guztiei eta, bereziki, tratu txarrak jasaten ari diren emakumeei, adore eman nahi die, indarkeriaren zirkulu horretatik irten baitaiteke.

2004ko abenduan Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala onartu zuten indar politiko guztiek aho batez eta lege horrek itxaropena ekarri die gizarteko orban hau jasaten duten emakumeei, euren esku baitaude erakundeen hainbat ekintza, babestu ahal izateko.

Espainiako Gobernuak eta Gorte Orokorrek emakumeen aurkako indarkeria agenda politikoko lehen mailan jarri dute eta beste erakundeetan indarrak batu behar ditugu biktimak artatzeko mekanismoak hobetzeko; baita prebentzioaren aldeko borrokan, biktimei eman beharreko laguntza integralean eta erasotzaileak jazartzean ere.

Fenomenoa zenbaterainokoa den ohartzen gara, baita errotik kentzea zaila dela ere. Horregatik, erakunde publiko guztiok, bakoitzak bere eskumenen barruan, bultzakada politiko hau ematen jarraitu beharra daukagu, emakume askok behar baitute.

Genero indarkeriak itxaropena bai baitu.

Genero indarkeria ez baita soilik

“Ante la conmemoración un año más, el próximo día 25 de Noviembre, Día Internacional contra la Violencia de Género, el Ayuntamiento Pleno del Ayuntamiento de Getxo quiere trasladar a la ciudadanía Getxotarra y muy especialmente a todas aquellas mujeres que están sufriendo malos tratos un mensaje de aliento, porque es posible escapar del círculo de la violencia.

La aprobación de la Ley Integral Contra la Violencia de Género en diciembre del año 2004 con la unanimidad de todas las fuerzas políticas ha supuesto la esperanza para las mujeres que sufren esta lacra social porque está a su disposición todo un caudal de acciones institucionales concretas para protegerlas.

El Gobierno de España y las Cortes Generales han colocado la violencia contra las mujeres en primera línea de la agenda política y desde las demás instituciones debemos aunar esfuerzos para cooperar en la mejora de los mecanismos de asistencia a las víctimas; así como en la lucha por la prevención, por la asistencia integral a las víctimas y por perseguir a los agresores.

Conscientes de la magnitud del fenómeno, de la complejidad de su erradicación, todas las instituciones públicas, cada una en el marco de nuestras competencias, debemos continuar con este impulso político constante que tantas mujeres siguen necesitando.

Porque ante la violencia de género, hay esperanza.

Porque la violencia de género no es un

emakumeen kontua, beharrezkoa da publikoki eta berariaz kondenatzea iritzi-lider guztiek eta horien artean gaude erantzule politikoak ere. Herritarren ordezkariak garen heinean, erabat arbuiatu behar dugu eta hori adierazi egin behar dugu emakumeren baten osotasunaren aurkako atentaturen bat izaten den aldioro.

Era berean, ahalik eta lankidetzan handiena sustatu behar dugu berdintasunaren alde ari diren emakume elkarteekin eta genero indarkeriaren biktimekin, izan ere, horiek baitira euren beharrak ongien ezagutzen dituztenak.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udaleko talde sozialistak Udaltzari honako mozioa aurkezten dio,

MOZIOA

1.- Getxoko Udalaren udaltzak adostu du Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Espainiako Gobernuarekin lankidetzan zintzoan aritzea euren eskumenen markoan emakume biktimen esku ahalik eta baliabide gehien jartzeko eta behin betirako ezartzeko gizarte laguntzaren sare integrala.

2.- Matxismoak emakumeak hiltzen ditu eta gizonezkoak doilortu. Beraz, prebentzioa ezinbestekoa da eta biktima izan daitezkeen emakumeengana ez ezik balizko erasotzailearengana ere bideratu behar da. Beraz, konpromisoa hartzen dugu Getxoko Udalak heziketa programak eta kanpaina dibulgatiboak sustatu ditzan. Horietan berdintasunaren aldeko gizon taldeek hartuko lukete parte, arazo hau errotik kentzeko

asunto privado de las mujeres, se hace necesaria la condena pública y expresa de todos los líderes de opinión entre los que nos encontramos los responsables políticos, que en representación de la ciudadanía, debemos manifestar nuestra más enérgica repulsa ante cada atentado contra la integridad de una mujer.

Asimismo debemos seguir impulsando la máxima colaboración con las organizaciones de mujeres que vienen trabajando por la igualdad y con las víctimas de la violencia de género ya que son quienes mejor conocen sus necesidades.

Por lo todo lo expuesto, el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Getxo, presenta ante el Pleno Municipal la siguiente,

MOCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda la leal colaboración con la Comunidad Autónoma de Euskadi y con el Gobierno de España para que, y en el marco de sus competencias, pongan a disposición de las mujeres víctimas todos los recursos posibles, implantando definitivamente la red integral de asistencia social.

2.- El machismo mata a las mujeres y envilece a los hombres por lo que la prevención es esencial y debe orientarse no sólo hacia las posibles mujeres víctimas si no hacia el potencial agresor, por lo tanto nos comprometemos a que el Ayuntamiento de Getxo impulse programas educativos, campañas divulgativas en las que participen grupos y colectivos de hombres por la igualdad de forma que se impliquen en

zereginen aritu daitezten. Horrelakoa da Getxoko Udaleko berdintasun Zerbitzuak proiektatu duena, sexismoari aurre egiteko interesa duten udalerriko gizonei zuzendutako trebakuntza eta hausnarketa tailer berri bat antolatuta.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuari eskatu, ikastetxeetan berdintasun planak sustatzeko.

4.- Osasun planetan genero indarkeria kontuan hartzea planteatu, osasun publikoko arazo larri legez.

5.- Udalerrian ikerketa zientifikoak garatu eta sustatu, biktimen eta horien seme-alaben osasun fisikoan eta psikikoan izan ditzakeen ondorioei buruz.

6.- Berriazko programak sustatu, udalerrian egoera bereziki zaugarrian dauden emakumeen egoerari heltzeko.”

la erradicación de este fenómeno, como por ejemplo, la proyectada por el Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Getxo organizando un nuevo taller de formación y reflexión dirigido a hombres del municipio que estén interesados en hacer frente al sexismo..

3.- Solicitar al Gobierno de la Comunidad Autónoma Vasca que se promuevan planes de igualdad en los centros educativos.

4.- Plantear que en los distintos planes de salud se contemple la violencia de género como un problema grave de Salud pública.

5.- Desarrollar y apoyar investigaciones científicas en el municipio sobre las consecuencias en la salud física y mental de las víctimas y de sus hijos e hijas

6.- Fomentar programas específicos para abordar la situación de las mujeres en situaciones de especial vulnerabilidad en el municipio.”

182.- TALDE SOZIALISTAREN MOZIOA “UDALEKO LANGILEEN LANERAKO EZINTASUN IRAGANKORRARI ETA BESTELAKOEI” BURUZ.

Almansa jaunak mozioa irakurri aurretik adierazi du azken urteetan EAJren gobernu taldeak langileen politika oso txarra izan duela. Langileei tratatu diktatoriala eman die, horien ordezkariak jazarri dituzte, etab. Hori guztia salatu nahi dute eta gobernu

182º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA RELATIVA A “INCAPACIDAD LABORAL TRANSITORIA DEL PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO; Y OTROS EXTREMOS”.

El Sr. Almansa antes de leer la Moción indica que en los últimos años el equipo de Gobierno del PNV ha tenido una política de personal nefasta que se ha traducido en un trato dictatorial a los trabajadores y a los representantes de los mismos con persecuciones, etc. lo

taldeari eskatzen dio sindikatuekin ulertzen hasteko berriro. Bestetik, adierazi du langileek bajako zazpigarren hilabetetik aurrera soldatan murrizketarik ez luketela izan behar eta eskubide hori berreskuratu beharrezkoa dela. Ondoren mozioa irakurri du.

Toca jaunak eskatu dio alderdi sozialistari 5. puntura transakzioa egitea onartzen al duen "empleadas/empleados públicos" sartzeko, eta Almansa jaunak onartu egin dio. Adierazi du Udalean Pertsonal Arloa zintzilik dagoela, eta etengabe inposizioa egin dela. 1991az geroztik postuen balorazioa egin gabe dagoela gogorarazi du eta 16 urte igaro diren arren, oposizioak ez duela horri buruzko inolako informaziorik. Komenigarria iruditzen zaio negoziazio mahaiari udaleko talde guztiak egotea, baita ahotsarekin eta botorik gabe izanda ere, kudeaketa gobernu taldeari baitagokio. Dena dela, talde guztiak presente egoteak akordioak bilatzeko aukera areagotu egingo luke. Sei hilabete baino gehiagoko bajetan soldata murriztea zigorra dela irizten dio eta Udalak badituela bitartekoak gezurretakoak iritzitako bajen jarraipena egiteko. Bere taldeak mozioa babestu egingo duela esan du, baita norberaren arazoengatik eta genero indarkeriagatik ordaindutako baimena ere.

Kepa Miñambresen gobernu taldearen izenean adierazi du mozioaren lehenbiziko hiru puntuak batera doazela eta gobernu-taldearen eskumena dela. Bestetik, Alkatezak adierazi die sindikatuei gaiari buruz negoziatzeko nahia eta horri buruzko

que denuncian, y piden al equipo de Gobierno que vuelva a la senda del entendimiento con los sindicatos e indica que debe recuperarse el derecho de los trabajadores a no sufrir una disminución de retribución a partir del séptimo mes de baja. A continuación da lectura a la Moción de referencia.

El Sr. Toca solicita al Partido Socialista si acepta la transacción al punto 5º a fin de incorporar "empleadas/empleados públicos", lo cual es admitido por el Sr. Almansa. Indica que en el Ayuntamiento el Área pendiente es el Área de Personal, en la que se ha practicado de manera continua la imposición. Recuerda que desde el año 1991 está pendiente la valoración de puestos y que pese a haber pasado 16 años la oposición no tiene ninguna información al respecto. Cree que es conveniente la presencia de todos los grupos municipales en la mesa de negociación, aunque sea con voz y sin voto, por reconocer que la gestión corresponde al equipo de Gobierno, pero que la presencia de todos los grupos mejoraría la posibilidad de buscar acuerdos. Opina que la medida de descontar en los supuestos de bajas superiores a seis meses es un castigo y que el Ayuntamiento tiene medios para hacer seguimiento de aquellas bajas que estime fraudulentas. Manifiesta el apoyo de su grupo a la moción, incluido también lo relativo al permiso retribuido por asuntos propios, y por violencia de género.

Kepa Miñambres en nombre del equipo de Gobierno manifiesta que los tres primeros puntos de la Moción están unidos, y se trata de un ámbito de competencia del equipo de Gobierno, y que por parte de la Alcaldía ya se ha manifestado a los sindicatos la

bilera laster izango da. Negoziazioaren emaitzen berri ere emango da. 4. eta 5. puntuak dagokienez, Estatuko legeditik eratorritakoak dira eta interpretazio arazoak sortzen dituzte. EUDELEN irizpideei jarraituz, ez du uste zuzenean ezar daitezkeenik arazo partikularrengatik lehenbiziko 6 egunak, hurrengo UDALHITZean EUDELEN eta sindikatuen artean negoziatzeari kalterik egin gabe.

Iñaki Urkizak adierazi du dekretua absentismoari aurre egiteko onartu zela eta horren inguruan egondako epaiak kontuan hartuta, dekretuaren ezargarritasuna murriztu egin dela. Bere iritziz ez du zentzurik hori mantentzeak eta arrazoizkoena sindikatuekin akordioaren batera iritea da. Horregatik, mozioa babestu egingo du eta alkatea bultzatu nahi du horren inguruko akordioaren batera iristera.

Almansa jaunak erantzun dio negoziatzeko gaitasuna gobernu taldearena dela, baina onartzekoa Udaltzako osoari dagokiola. Beraz, Udaltzak mozioa babestu egingo du argi baitauka EAJk aurreko legealdietan izan zuen politika diktatorialak eta autoritarioak langileen eskubideak murriztu egin dituela eta horiek berreskuratzea ezin dela negoziatu. Amaitzeko, adierazi du gobernu taldeak borondate ona erakutsi nahi badu, egin beharrekoa Dekretua baliogabetzea dela.

Toca jaunak ere mozioa babestu egingo dutela adierazi du eta negoziatio-mahaian talde guztiak egotea egokia litzatekeela. Urkiza jaunari gogorarazi dio aldatu nahi dituen akordioak bere

voluntad de negociar la cuestión, estando convocada próximamente una reunión al respecto y que se informará del resultado de la negociación. En relación a los puntos 4º y 5º que derivan de la legislación estatal manifiesta que está generando problemas de interpretación, y que siguiendo criterios de EUDEL creen que no son de aplicación directa los 6 días de permiso por asuntos particulares, sin perjuicio de que es cuestión a negociarse en el próximo UDALHITZ entre EUDEL y los sindicatos.

Iñaki Urkiza indica que el Decreto se aprobó con la finalidad de luchar contra el absentismo, y que teniendo en cuenta las sentencias que han recaído sobre el mismo, que han reducido su aplicabilidad, estima que no tiene sentido mantenerlo y que lo razonable es llegar a un acuerdo con los sindicatos, por lo que va a apoyar la Moción, y anima al Alcalde a que llegue a un acuerdo al respecto.

El Sr. Almansa indica que la capacidad de negociación es del equipo de Gobierno, pero la capacidad de aprobar corresponde al Pleno, y que el Pleno va a apoyar la Moción porque tiene claro que la política dictatorial y autoritaria del PNV en legislaturas anteriores ha reducido derechos de los trabajadores, y que la recuperación de los mismos no es negociable. Finaliza manifestando que si el equipo de Gobierno quiere mostrar buena voluntad lo que tiene que hacer es dejar sin efecto el Decreto.

El Sr. Toca se reafirma en el apoyo a la Moción y en la conveniencia de la presencia de todos los grupos en la mesa de negociación y recuerda al Sr. Urkiza que los acuerdos que pretende

garaian berak onartutakoak direla.

Miñambres jaunak adierazi du parte hartzeak ez direla ekarpen berririk egiten ari eta gogorarazi du gobernu taldeari gaia aztertzen uzteko denborarik eman gabe aurkeztu dela mozioa.

Urkiza jaunak adierazi du errekurritutako neurria Alkatetzaren dekretua izan dela eta ez bera kide den gobernu batzordeko akordioa.

